

Euskal Herria Museoak 1733. urtean eraikitako Alegria edo Montefuerte jauregi barrokoan du egoitza. 1982an Bizkaiko Foru Aldundiak konpondu eta museo bihurtu zuen. Jauregiaren barnealdeak **Euskal Herriko historian eta kulturean** zehar bidaiatzeko aukera ematen digu, bisita osatzen duten

maketa, arte-lan, ikus-entzunezko eta hainbat objektu lagungarri direlarik



Hezkuntza Zerbitzua:

Euskal Herria Museoak bisita gidatuak eta jarduera didaktikoak antolatzen ditu urte osoan zehar bisitariak Museoaz gozatzeko aukera izan dezaten. Gainera hezitzaileei zuzendutako zerbitzu berezia eskaintzen du:

Hezitzaileentzako prestakuntza bilerak:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldean, Museoak hezkuntza zerbitzuak prestakuntza bilerak antolatzen ditu Museoan ikasleekin bere kabuz bisitatu nahi duten irakasleek espazioa alde aurretik ezagutu dezaten. Ezinbestekoa da aurretik izena ematea (946255451).

Material Didaktikoa:

Egiten diren tailer guztien eta Museoako gelen idatzizko material didaktikoa dago, euskaraz eta gaztelez eta gelen informazioa baita ingeles eta frantsesez ere. E-mail edo gutunez bidali daiteke eta nahi izanez gero Museoako Web orritik jaitsi daiteke:

www.bizkaia.net/euskalherriamuseoa

SALNEURRIAK:

- 3 €** ohiko sarrera.
- 2 €** Tailerra.
- 1,50 €** Murriztua (jubilatua, taldeak, ikasleak, etab.)
- 1 €** Ikasle taldeak.
- GRATIS** 12 urtetik beherakoak, taldeko laguntzaileak, bisita gidatuak, larunbatak.

ORDUTEGIA:

Asteartetik larunbatera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Igandeak: 10:30etatik 14:30era.

Jaiegunak: 10:30etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:30era.

Astelehenak: Itxita, urriko lehenengo eta azken astelehena izan ezik.



Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako egokitua.

c/ Allendesalazar 5 . 48300 **Gernika-Lumo**

Tel: (+34) 94 625 54 51

Faxa: (+34) 94 625 74 15

e-mail: euskalherriamuseoa@bizkaia.net

www.bizkaia.net/euskalherriamuseoa



**BISITA
eta
JARDUERA
DIDAKTIKOEN
EGITARAUA**

2010 - 2011

* Ezinbestekoa da alde zurretik izena ematea bisita gidatuak eta tailer didaktikoak egiteko.

IKASLEENTZAKO TAILERRAK:

Urritik ekainera 4 eta 16 urte bitarteko ikasleentzako tailerrak egiten dira. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara. Saio bakoitzean 30 partaide onartzen dira. Ikasle bakoitzak **2 € ordaindu behar ditu.**

Hiru tailer ezberdinen artean aukeratu daiteke:

1. EUSKAL KULTURA JOKOA:

Nori zuzenduta: 8 eta 12 urte bitarteko ikasleak.

Iraupena: 2 ordu.

Gaia: Neska-mutilek Euskal Herriko Kultura eta folklorea hobeto ezagutzeko aukera izango dute proba eta galderaz osatutako joko baten bitartez eta Museoko bigarren solairua modu berezina bisitatuz.



2. BASOAK HISTORIAN:

Nori zuzenduta: 4 eta 12 urte bitarteko ikasleak.

Iraupena: 90 minutu.

Gaia: Agenda 21ekin lotutako tailerra da. Birziklatze eskulanak edo parkean egindako pista joko baten bitartez ikasleek giza-kiak basoengan izan duen eragina ezagutuko dute.



2. ALTXORRAK eta KARTOGRAFIA:

Nori zuzenduta: 10 eta 16 urte bitarteko ikasleak.

Iraupena: 90 minutu.

Gaia: Aintzina euskal lurraldea nola irudikatzen zuten ezagutuko dute. Kartografia zientzia oinarritzat harturik eta aintzinako mapak aztertuz, iparrorratz bat sortuko dute eta Museoko lorategian altxor bat bilatu beharko dute.



TAILERRAK OPORRETAN:

Gabonetako eta **udako** oporretan, asteartetik ostiralera goizetan, Museok 4 urtetik 12 urte bitarteko umeentzat tailerrak eskaintzen ditu.



FAMILIENTZAKO TAILERRAK:

Urte guztian zehar, larunbatean, arratsaldeko 17:00etan familientzako tailerrak antolatzen ditu Museok.



BISITA GIDATUAK:

Nori zuzenduta: Mota eta adin guztietako taldeak.

Azalpenak taldeari egokituak.

Noiz: Urte guztian zehar. Asteburuetan ez dira egiten.

Iraupena: Ordu bat.

Gidari bakoitzarekin 15 pertsona eta talde arduraduna onartzen dira. Ordu bakoitzeko bi talde sar daitezke.



BESTE EKINTZA BATZUK:

Gernikako Bonbardaketaren urteurrena:

Apirilaren 26an, Euskal Herria Museok Gernika-Lumoko Bonbardaketa izan zeneko eguna gogoratzen du eta gertaera honekin zerikusia duen euskal artistaren baten obra erakusgai egoten da. Egun horretan sarrera doakoa izaten da.

Museoen Eguna eta Gaua:

Urtero, **maiatzaren 18an** Museoen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta egun horretatik hurbilen geratzen den larunbatean Museoen Gaua. Museok egun bi hauetan ekitaldi bereziak antolatzen ditu, sarrera doakoa izaten da eta opariak banatzen dira. Egitarau zehatza maiatzean aurkezten da.

Hitzaldiak, kontzertuak, antzerkiak, etab.:

Urtean zehar ekintza, tailer, hitzaldi, kontzertu, etab. berriak antolatu daitezke, guztiak Museoko Web orrian agertuko dira.